

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak abian jarri du Ikasketa plaza berritzeko tramitazioa

Obren lizitazioak 704.339 euroko aurrekontua eta urtebeteko epea ditu

Donostiako Udalak Amara auzoko Ikasketa plaza berrurbanizatzeko proiektua kontratatzeko espedientea onartu du. 12 hilabeteko epean gauzatu beharko da eta 704.339 euroko aurrekontua izango du.

Eneko Goia alkateak gogorarazi duenez, “lan hauen helburua espazio handi hori birsortzea da, eguneroko okupazioa eta erabilera handitzeko. Esku-hartze hau bizilagunen eskaera historikoa da gainera”.

Plaza hainbat mailatan banatuta dago; beraz, lan horiei esker, harmailadi bat egingo da erdiko uhartearen inguruan, hesi fisikoak nahiz ikusizkoak kentzeko, eta goiko plataformaraino iristeko moduko ibilbide bat egingo da, bi arrapalen bidez. Goialdean, haurrentzako jolastokia egongo da, eta elementu eskultoriko bat izango du, haurren jolasgune nagusi gisa.

Garajerako sarbideak ere eraberrituko dira, plazari lorategiak eta aireztapen tximiniak ezkutatzeko bereziki diseinatutako altzariak jarriko zaizkio eta argiztapen egokia bermatuko duten luminaria berriak jarriko dira.

Esku-hartze hau eremu publikoko eta eremu pribatuko obretan banatuta dago. Eremu publikoari dagozkionak lizitazio honi dagozkionak dira, eta Udalak esleitu eta finantzatuko ditu; eremu pribatuari dagozkionak, berriz, aparkalekuen egitura sendotzea eta iragazgaiztea. Hobekuntza pribatu horiek egiteko, Udalak 143.782 euroko diru-laguntza eman zuen, herritar guztiei plaza irekitzeak dakarren interes publikoagatik.

Altzako kiroldegiko igerilekuak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Altzako kiroldegiko kanpoko igerilekuak egokitzeko proiektuko obrak kontratatzeko espedientea. Obra horiek 2.293.201 euroko aurrekontua eta 8 hilabeteko epea dute.

Proiektuak kanpoko igerilekuak eraikinetik urrunago dagoen leku batean kokatzea aurreikusten du, hala solariumaren erabilizaileak nola igerilekuak berak hegoalderantz begira dezaten, orientazioa eta bistak lehenetsiz. Igerilekua diametro desberdineko bi gune zirkularretan banatu da, eta sakonera txikiagoa eman zaio diametro txikienekoari. Gainera, eskailera bat eta arrapala bat jarri dira, haur txikiak eta adinekoak errazago sartzeko.

Kanpoko igerilekuko hondartzen esparrua barandez bereiziko da solariumaren gainerakotik, eta esparru horretara sartzeko, funtzionamendu automatikoko dutxak dituzten hiru sarrera erabiliko dira. Ur jolastokiak igerilekuko hondartzen ondoan kokatuko dira.

Jolastokietako igogailua

Tokiko Gobernu Batzordeakonartu du Jolastokietan igogailu bertikal bat jartzeko proiektua, Alza auzoko Txirrita Bertsolariaren pasealekuaren eta Larratxo pasealekuaren artean, 458.063 euroko aurrekontuarekin.

Prensa oharra

Nota de prensa



Proiektuaren helburua da Jolastokieta inguruan bizi diren pertsonen irisgarritasuna hobetzea, Herrera aldeko etxebizitzan eta Altza auzoko goiko aldearen arteko zuzeneko komunikazioa hobetuz. Gaur egun, eskailera luze bat besterik ez du, 65 maila inguru dituena.

Patruila-auto elektrikoak

Tokiko Gobernu Batzordeak UNIQUE EXECUTIVE COACHES SL-ri esleitu dio Udaltzaingoari lau patruila-auto elektrikoak renting sistemaren bidez hornitzeko kontratua. Patruila-auto berriek %100 elektrikoa den erregaia (0 igorpeneko motorra) izango dute, kargatze-sistema barne, eta 300 km-ko gutxieneko autonomia.

Kontratuaren urteko prezioa 48.554 eurokoa da lau ibilgailuentzat, eta 4 urteko iraupena, ibilgailuak entregatzen direnetik kontatzen hasita. Urtebete luzatzeko aukera dago (luzapeneko urteko prezioak %40ko deskontua izango du aurreko prezioaren gainean).

Zoladura

Tokiko Gobernu Batzordeak hirugarren aldaketa onartu du hiriko kale eta bideetako zoladurak konpondu, berritu eta mantentzeko zerbitzuen kontratuan, eta bertan Santa Klara uharteko bide nagusia berreraiki eta osorik konpontzea sartu da, 178.159 eurotan.

Donostia, 2021eko martxoak 23